

**Hauek dira 3. Saioan egin zenituzten galderen artean nabarmenenak eta hiru lurraldeetan gehien errepikatu zirenak.**

**Ez ditugu hemen sartu, Orakuluko bideoekin eta Eugenio Astigarragaren bideoetako galderekin erantzunda geratzen diren galderak.**

1. Zenbat bideratu behar du erronka irakasleak?
2. Nork ebaluatzen du? Zein neurritan hartu ahal du parte ikasleak bere ebaluazioan?
3. Pausu denak burutu behar dira erronkan?
4. Ze maiztasunekin egin behar dira dinamikak?
5. Zenbat kompetentzia (tekniko zein zeharkako) izan behar ditu erronkak?
6. Nola egiten dira errubrikak?
7. Zein informazio iturri dituzte ikasleek erronka aurrera eramateko?
8. Zer dokumentu mota entregatu behar dut? Nola ebaluatuko gaituzue? Zer da ezinbestekoa gure erronkan agertzea?
9. ¿Sortu al dezaket ikasketa emaitzarekin erlazio zuzenik ez duen erronkarik?
10. Zenbateko denbora portzentaia eskeini behar zaie zeharkako kompetentziei kompetentzia teknikoaren aurrean?
11. Erronka irekia edo gidatua izan behar du?

## 1. Zenbat bideratu behar du erronka irakasleak?

Ikasleekin landu daitezkeen zeharkako gaitasunen arteko bat autonomia da. Izan ere, erronka 11 pausuen bitartez diseinatzea, ikaslegoa bere ikaskuntza prozesuan modu autonomoan ekin dezan laguntzen du eta bide batez gaitasunak eskuratzen ditu.

Hori horrela, irakasle taldeak ikaslegoaren hezkuntza maila aztertu behar du eta analisi horren ondorioz, ikaslegoak beharko duen laguntza edo interbentzio maila erabakiko du.

Ez badugu ondo doitzen ikaslegoak behar duen laguntza, hauen frustrazioa eta interes galera eragin dezakegu, beraz aztertutako beharren arabera, hasiera batean erronka apur bat zuzenduago egon daiteke eta Aurrera egin ahala zuzentze hori mugatu dezakegu.

Ikaslegoa bere antolakuntzan, talde lanean, erabakiak hartzean eta abarretan autonomia izan dadin garrantzitsua da eta horretarako hasiera batean erramintak emango dizkiegu trebatu daitezen.

## 2. Nork ebaluatzen du? Zein neurritan hartu ahal du parte ikasleak bere ebaluazioan?

Hezkuntza prozesuan inplikaturik egon diren pertsonak guztiak hartu dezakete parte ebaluazio prozesuan.

Kasu horretan heteroebaluazio baten inguruan arituko gara (irakasleak egiten duen ebaluazioaz aritzeko), Koebaluazio baten inguruan (taldearen partaideak egiten duen ebaluazioaz aritzeko) eta autoebaluazio baten

inguruan (ikasleak berak bere burua ebaluatzen duenean)

Erronka bakoitzaren testu inguruan jarrita, beste pertsona batzuk ere ebaluazio prozesuan parte hartu dezakete. Adibidez, erronka enpresa batek bota badu, enpresaren arduradunak prozesuan parte hartu lezake.

Kasuak kasu, beti ere, IRAKASLE TALDEAK erabakitzen du zelan burutuko den ebaluazio prozesua.

Ikaslea ebaluazio prozesuan sartzeak erronkan edukiko duen inplikazioa areagotzen du eta gainera erabakiak hartze prozesuan, konpromezuak hartzeko orduan eta abarretan ahaldunduzten du.

Irakaslearentzat, ebaluazio iturri ezberdinek egiaztatutako ebidentziak dira eta ikasle bakoitzaren eboluzioa ikusi dezake gaitasun ezberdinetan.

### **3. Pausu denak burutu behar dira erronkan?**

Metodologia aktiboen dinamika hainbat modutan egituratu daiteke. Tknikaren proposamena 11 pausuak dira; "Dibergentzia-konbergentzia" prozesua ziurtatzen duen oso ebazpen-dinamika berezia da eta ikasleei aukera ugarien ikuspegitik elkarlanean lan egiteko aukera ematen diena.

Erronkaren urrats guztiak helburu batekin diseinatuta daude. Alde batetik, 11 pausuak arazoak konpontzeko metodo bat dira, ikasleek barneratuko dutena eta bizitza pertsonalean eta profesionalean planteatzen zaien beste edozein arazoren aurrean baliagarri izango zaiona. Bestetik, 11 pausuen bidez, proposatutako zeharkako gaitasunak lantzea ahalbidetuko du, erronkaren gaitasun teknikoek gain.

Gerta daiteke, erronkaren, dinamikaren edo gaiaren izaeragatik, irakasle-taldeak zenbait urrats lotzeko aukera aintzat hartzea. Hasierako prestakuntza honetarako, 11 pausuetako bakoitza bereiz lantzea gomendatzen dizuegu, pausu bakoitzaren funtzioak eta dinamizatzeko aukerak ezagutzeko gai izan zaitezten eta pausuen potentzialtasuna uler dezazuen.

### **4. Ze maiztasunekin egin behar dira dinamikak?**

Puntu honetan garrantzitsuena, dinamikak helburu bat betetzea bilatzen dutela da. Dinamika bat gelan burutzea alde aurretik testuingurua ondo zehaztu gabe, ikaslegoari zein irakaslegoari interesa galarazten dio.

Behin hau ulertuta, Ethazi gorpuean dauden pausoetariko bakoitza, erronka dinamizatzeko eta zeharkako gaitasun ezberdinak lantzeko aproposak dira. Tknikako Ethazi biltegian, 11 pausuen gorpil interaktiboa aurkitu dezakezue eta bertan, dinamika, TIC erraminta eta abarrak aurkituko dituzue pausu bakoitzerako egokiak direnak. Gainera bertan azalduta aurkituko duzue bai dinamika bera, zein berari lotuta egon daitezkeen zeharkako gaitasunak ere.

<https://ethazi.tknika.eus/es/retos/>

## 5. Zenbat konpetentzia (tekniko zein zeharkako) izan behar ditu erronkak?

EOP ikastaro honetan diseinatzeko proposatzen dizuegun erronka honentzako, gaitasun asko ez aukeratzea da egokiena. Aukeratutako gaitasunak lantzeko denbora hartu behar da, (ez soilik ebaluatzeko denbora), beraz, gure esperientzia laburra kontutan hartuta ere, hobe da apurke apurke hastea. Zenbaki bat esatearren, 1-3 gaitasun tekniko bitartean eta 1-2 zeharkako gaitasun.

Erronkaren baldintzen berri, 4. Saioaren power pointean edukiko dituzue.

## 6. Zer motako teknikak erabili daitezke talde dinamika ezberdinak lantzeko?

Gelan lan kooperatiboa dinamizatzeko orduan, Tknikatik zenbait teknika proposatzen dizkizuegu, honako lotura honetan:

<https://ethazi.tknika.eus/es/tecnicas-de-aprendizaje-colaborativo/>

Esparru ezberdinen gainean sakatu ezker, atal ezberdinak lantzerantz bideratuta dauden dinamika aurkituko dituzue.

A esparrua; taldearen kohesioa lantzerantz zuzendutako dinamika.

B esparrua; Modu kolaboratibo batean erronkaren edukiak lantzeko egiturak dira, batzuk sinpleak eta beste batzuk konplexuagoak.

C esparrua; Talde lana dinamizatzeko eta bere antolamenduan laguntzeko erramintak dira hauek.

Bestalde, beste lotura honetan Tknikaren proposamena daukazue taldeak sortzeko orduan.

<https://ethazi.tknika.eus/es/tecnicas-de-creacion-de-equipos/>

## 7. Zein informazio iturri dituzte ikasleek erronka aurrera eramateko?

Zuek erronkaren 4. Pausuan, “informazioa lortu eta antolatu”, informazioa bideo ezberdinen bidez, galderen bidez...eta abar lortu duzue erronka aurrera eraman ahal izateko. Ikasleek ere, 4. Pausu honetan, erronka aurrera ateratzeko informazioa bilatu beharko dute, eta horretarako bide anitzak daukate: Klase magistralen bidez, indagazioa, praktikak, ariketak, adituen bisitak, bideo tutorialak eta abar.

## 8. Zer dokumentu mota entregatu behar dut? Nola ebaluatuko gaituzue? Zer da gure erronkan agertu behar den ezinbesteko edukia?

Zuek “Itxasoa” atalean erronka diseinatzerako orduan, Tknikak hurrengo loturan eskaintzen duen “Irakaslearen erronkan” oinarritu zaitezke.

<https://ethazi.tknika.eus/es/retos/>

Eredua jarraituta eta Orakulan hartu duzuen informazioarekin erronkaren atal ezinbestekoak diseinatuko dituzue arazo barik.

Behin erronka diseinatu eta martxan jarri duzuean, EOP taldeko irakaslegoa denbora tarte bat hartuko dugu zuen erronka irakurri eta ebidentziak (nola irten denaren analisia, ikusitako hobekuntza atalak..) aztertzeko eta informazio guzti horrekin errubriken bitartez (Zuek SETen erabiltzen dituzuen errubrika berdinak), zuen lana baloratuko dugu. Honen ostean, feedback bat jasoko duzue zuen lanaren alde onak azpimarratuz eta hobetzeko proposamen batzuk eginez.

### **9. ¿Sortu al dezaket ikasketa emaitzarekin erlazio zuzenik ez duen erronkarik?**

Noski egin daitekeela ikasketa emaitzekin zer ikusirik ez duen erronka. Ikastetxe batzuetan, zeharkako gaitasunak edota balioak lantzeko erronka bereziak adibidez egiten ari dira. Dena den, ezin dugu ahantzi gure lana ikasleen ikasketa prozesu baten parte dela eta prozesu hori OCDan definiturik dauden ikasketa emaitza batzutan oinarriturik dagoela. Ezin dugu utzi alde batera OCDan definiturik dauden ikasketa emaitz bat bera ere baina bai posible dugu erantsi. Beraz, erronkak ikasketa emaitzei erantzun behar diote.

### **10. Zenbateko denbora portzentaia eskeini behar zaie zeharkako kompetentziei kompetentzia teknikoaren aurrean?**

Ez dago denbora zehaztu bat bati edo besteari eskeini beharrekoa. Definiturik dagoen gauza bakarra ikasketa emaitzak dira. Bati edo besteari eskeiniko diogun denbora irakasle taldeak ikasketa emaitzei eskeiniko dien garrantzia edo lehentasunaren baitan egongo da. Zikloaren baitan, ikasle motaren baitan.....egongo da.

### **11. Erronka irekia edo gidatua izan behar du?**

Ezin dugu ahantzi irakasleak beti egin beharko duela gidari lana, irakasle taldeak aurredefiniturik dauzkan helburuetara gidatuz. Erronkak ikasleari arazo baten aurrean soluzio desberdinak aztertzeko aukera eman behar dio eta aukera guztiak aztertu ondoren gai izan behar da berak aukeratu duena ikuspuntu kritiko batekin defenditu eta aurrera eramateko haserako arazoari aurre eginez. Zenbat eta irekiagoa izan erronka, are eta aukera gehiago izango dituzte ikasleek sormena, ... eta are eta gehiago aukeraketa zentzu kritikoz defenditu beharra. Ezin dugu ahaztu ordea denbora mugatua dugula eta zenbat eta irekiagoa izan denbora ere gehiago beharko dutela edo landuko dituzten gaiak agian ez direla izango benetan lantzea interesatzen zaizkigunak, edo emaitza bat ez izateak ere etsigarritasunera eraman diezaiekela. Beti ere daukagun ikasle perfilaren arabera izango dugu erronka itxiagoa edo irekiagoa: erdi mailetan erronka zuzenduagoak eta irekiagoak goi mailetan.